

41 Saskibaloia



Andoniri saskibaloiarekiko interesa areagotu zaio azken bolada honetan eskolako taldean jokatzeko hasi denez geroztik.

«Saskibaloia oso kirol berria da. James A. Naismith izeneko kanadar batek asmatu zuen, Massachusetts-ko eskola batean gimnasia-irakasle ari zela.

Saskibaloia Nazioarteko Federazioak (FIBA) 170 herrialde baino gehiago biltzen ditu gaur egun. Nazioetako selekzioari onenak Olinpiar Jokoetan eta Munduko Txapelketan parte hartzen dute.

Baloia aurkakoen saskian sartzean datza jokoa. Saskien altuera 3,05 metrokoa da. Saskiratze gehienek bi puntu balio dute, 6,25 metroko marratik lortutakoek izan ezik, horiek 3 puntu balio baitute. Partida amaitzean puntu gehien lortzen duen taldea da irabazlea.

Talde bakoitzak 12 jokalaria izan ditzake gehienez: bost kantxan jokatzeko aritzen dira eta gainerakoak ordezkariak dira. Jokalariek gain, arbitro bat ere egoten da kantxan; bera da arauak betearazi eta epaile gisa aritzen dena.

Kirol horretan baloia eskuez baino ezin da ukitu eta boteka erabili behar da, nahitaez. Partida hasten den unetik bertatik, baloia duen jokalaria ezin du hiru pauso baino gehiago jarraian egin baloia eskuan duela eta boterik egin gabe; hala eginez gero, arbitroak falta egin duela adieraziko dio, «urratsak» hain zuzen ere.

Zenbait falta, hala nola aurkakoari bultza egitea edota eustea, bat edo bi jaurtiketa libreekin zigortzen dira. Faltza pertsonalak dira horiek. Horrelakoetan, falta jasan duen jokalaria taldeko batek jaurtiketa bat edo bi egin ditzake saskira inoren eragozpenik gabe. Horrela lortutako saskiratzeek puntu bakarra balio dute. Jokalari bakoitzak 5 falta pertsonal egin ditzake gehienez. Bestela kalera joan beharko du eta ordezkari bat irtengo da haren lekuan.

Denbora oso garrantzitsua da saskibaloian. Jokalariek 10 segundo izaten dituzte aurkakoen zelaira heltzeko; han daudela, 24 segundo baino ez dituzte baloia jokatzeke eta, saskiratzeen ondoren, 5 segundo agortu aurretik ekin behar diote berriz jokatzeari. Partidek 10na minutuko lau alditan banatzen dira eta, sarritan, azken segundora arte lehiatzen dira jokalaria puntuak atera nahian».

1. Zer da FIBA delakoa?

2. Zein da arbitroaren eginkizuna saskibalo-partidetan?

3. Zer dira «ordezko» jokalaria?


- ☐ Aurkako taldeko jokalaria.
- ☐ Aurkako jokalaria bultzatu eta faltak egiten dituzten jokalaria.
- ☐ Jokoa ari diren lekuan sartzeko prest dauden jokalaria.



4. Talde bakoitzeko zenbat jokari aritzen dira kantxan une berean?

5. Nor da partidako irabazlea?

6. Saskiratzeak eta puntuak gauza bera al dira? Azaldu.



7. Zenbat balio du jaurtiketa librean lortutako saskiratze bakoitzak?

8. Jokalaria, baloia eskuan duela, nahi adina ibil al daiteke kantxan?

9. Zer-nolako altuera dute saskibaloiko saskiek?

10. Zenbat irauten du aldi bakoitzak saskibalo-partidetan?



Ebaluazioa

- Zuzendu zeure ariketak.
- Margotu gorriz erantzun zuzen bakoitzari dagokion laukia.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----